Por ejemplo, la cooperación y la igualdad, haciéndoles ver en los juegos de grupo que todos tienen algo que aportar; y aprender sobre nuestro entorno y ecología mientras juegan. Además, impulsaremos la cultura vasca y el uso del euskara. Por último queremos mejorar la relación entre alumnos de diferentes edades, para que formen un grupo más sólido.

El pasado 26 de octubre fue el primer encuentro, y como el tiempo acompañó pasamos una tarde estupenda. Sofía, Lorena, Aimar, Olatz, Maialen, Ibai, Maider, Natalia y Ander os esperan en el grupo de tiempo libre **XIRIMIRI. ¡Animaos!**

# UXUE ARRAZOLA: “Ikastolaren arrakasta ikasle bakoitzaren arrakastan oinarritzen da”

## ZUZENDARI BERRIAK “GOGOZ ETA ILUSIOZ” HARTU DU LEKUKOA

**Nola hartu duzu EKINTZAko zuzendari izatearen erronka?**

Ilusio eta erantzukizun handiz. Erronka oso polita dela iruditzen zait. Eskolek oso momentu berezia bizi dugu, era askotako berrikuntza prozesuetan murgilduta gaude, eta gure iparra den xedea galdu gabe, egoki erantzutea erronka handia dela uste dut.

Era berean, ziur naiz ikasle, familia eta langile kopuru handia duen ikastolaren kudeaketan asko ikasteko aukera izango dudala. Talde lanean sinesten dut, eta alde horretatik ere, profesional talde sendo, inplikatu eta izugarri langileaz inguratuta nagoela sentitzeak urrats hau ematera animatu nau.

**Ignacio urte askotan izan da zuzendari... Zein irudi utzi du zuregan?**

Ignaciok proiektuan bere arima jarri duela ikusi dut. Ikastolako sortzaile, irakasle eta zuzendari izateaz gain, ikastolan gertatzen den guztiaren gainean egoteko gaitasuna izan du. Kudeaketan aditua, irakasle eta zuzendari entregatua izan da. Pertsona zintzo eta leiala dela erakutsi du. Batxilergoko arduradun izanik bere ondoan lanean egin ditudan urte hauetan asko ikasteko aukera izan dut eta benetan eskertua nago.

> “Los centros escolares vivimos tiempos de cambio e innovación, pero nos toca responder a los retos sin perder el rumbo”.

**Zer eskaintzen die EKINTZA Ikastolak haur eta gazteei?**

Hezkuntza Proiektu sendoa, ikasteko eta bizitzeko gune abegikor eta segurua dugula esango nuke, hori bai, etengabeko hobekuntzan dagoen proiektu bizia eskaintzen dugu. Eta hori guztia aurrera eramateko, aipatu bezala, gizatalde kon-

prometitua eta saiatua, esperientzia handiko profesionalak, umearen ongizatea irakaskuntzaren erdian jartzen dutenak, alegia. Koordinazio ahalegina handia da eta baliabide asko jartzen ditugu, bai materialak bai metodologikoak ikasleen esperientzia arrakastatsua izan dadin. Ikasle, familia eta langileen arteko erlazioa oso estua dela esango nuke; komunitate zentzu handia dagoela esatera ausartuko nintzateke.

Garbi dugu ikastolak lortzen duen arrakasta ikasle bakoitzaren arrakastan oinarritzen dela.

**Zein dira, zure ustez, Ikastolaren etorkizuneko eginkizun nagusiak?**

Gizartearekin batera, familiak, ikasleak eta haien beharrak aldatzen ari dira. Urte gutxi barru, gaur egungo lanbiderik apenas ez dela existituko esaten digute.

**Zein da aldaketa hauen guztien aurrean ikastolen eginbeharra?**

Egokitzea, aurrera egitea tokaten zaigu XXI. mendeko pertsonek behar duten eskola izateko, baina beti ere argi izan behar dugu oinarri trinkoa eskaini behar diogula ikasleari ziurgabetasunari aurre egiteko.

Beste pare bat erronka aipatzearren, honako hauek ere azpimarratuko ditut: batetik, gure Ikas-

tolaren eskaintza oso interesgarria bada ere, egiten ditugun gauzak ezagutzera emateko kulturarik ez dugu; beraz, epe motzera, komunikazio gaitasuna hobetu behar dugula uste dut. Eta bestetik, Ikastolaren eta bertako profesionalen duintasuna zaindu beharrean gaude; gero eta exijentzia handiagoko gizartea gara eta familiek ere gero eta eskakizun gehiago egiten dizkigute, batzuetan neurriz kanpokoak esango nuke nik, ondorioz, kudeaketa gero eta konplexuagoa gertatzen da.

Euskal Herria osoan dugun arazoa den arren, Donostian areagotzen den jaiotze tasa baxua ere arazo bat izango da epe motzean. Aurreikuspenak beldurgarriak dira eta ikastolek honen aurrean gure eskaintza eta esentzia ondo errotuak izan behar ditugu

Baditugu beste hainbat erronka ere, hala ere, aipatutako erronka hauekin badugu egin beharra, epe motz ertain eta luzeari begira.

> **"Sentirme rodeada de un equipo de profesionales fuerte, implicado y muy trabajador me han ayudado a dar este paso".**

**Egin iezaguzu zure aurkezpen txikia**

Donostiarra naiz, 42 urte ditut eta ADEn lizentziatua naiz DEUSTOren eskutik. Azken urtea Erroman egin ondoren EHUn kooperazioa eta garapen ekonomian Masterra egin eta Mexikon lanean ibili nintzen. Elebiduna izateaz gain, ingelesa eta italiarra hitz egiten ditut. Familia

> **"Estoy muy agradecida a Ignacio Marín por lo que me ha enseñado durante los años que he trabajado a su lado".**

ugaria dut, alaba eta 2 seme. Ikastolan lanean hasi aurretik Garapen Agentzia batean lanean aritu nintzen eta unibertsitatean klaseak eman nituen osagarri.

**Lana, familia … baduzu bestelako zaletasunetarako tarterik?**

Bai, noski. Honetan ere talde lanean aritzen naizenez, tarteak ditut nire zaletasunetarako: irakurketa, mendia, kirola eta bidaiatzea dira nire zaletasun handienak.

**Zure ama Ikastolako irakaslea izan zen, zer suposatu du honek zuretzat?**

Ez zen irakasle bakarrik izan, hilabete gutxi batzutan zuzendari ere izan baitzen, ni jaio nintzen arte. Badira ikastolan oraindik ere guraso batzuk amaren ikasle izan zirenak eta maitasun handiz inguratzen zaizkidanak ama oroitzen; momentu oso hunkigarriak izaten dira niretzat. Inoiz ez zitzaidan burutik pasa EKINTZAn lan egitearen aukera. Ni oraindik unibertsitatean nenbilen nire ama hil zenean, beraz, ez zuen jakin EKINTZAn lanean hasi nintzenik. Unibertsitatean klaseak eman nituen garaian irakaskuntzaren jakin-mina sartu zitzaidan eta EKINTZAtik deitu zidaten nire perfileko pertsona baten bila zebiltzalako. Ni neu harrituta nago bizitzak ematen dituen birekin.

# BERRIKUNTZAK JANTOKIAN

## HORNITZAILE BERRIAK PROPOSAMEN OSASUNGARRIAK BULTZATUKO DITU

*Apreciadas familias, alumnado y comunidad educativa, desde este septiembre y continuando con la apuesta de EKINTZA Ikastola por la mejora permanente y la innovación y dentro del ámbito de la alimentación escolar, se nos ha asignado la responsabilidad del servicio de alimentación del Comedor de la Ikastola en un ambicioso proyecto que se irá desplegando con la participación de todas y todos.*

*Desde productos Eko-Bio, productos locales, días sin proteína animal, reducción de frituras, aumento del consumo de frutas frescas, talleres y charlas nutricionales y de salud hasta menús más saludables y políticas de compra sostenible, en ASKORA hemos asumido el reto de trabajar junto a todos vosotros y vosotras, de forma abierta y transparente, para procurar una alimentación más sana y sostenible a nuestros hijos e hijas.*

*Con un Equipo altamente formado y comprometido, desde la óptica de personas que cuidan y miman a personas, con importantes reconocimientos desde Gobierno Vasco, Diputación Foral, Ayuntamiento y otras Instituciones como los SDN Awards, en ASKORA nos hemos volcado para que, de una forma totalmente personalizada, el servicio del comedor de EKINTZA Ikastola sea todo un referente donde nuestros hijos e hijas tengan una experiencia saludable, placentera y sostenible.*

*Ese es nuestro compromiso y nuestro reto compartido.*

*Gracias por vuestra confianza. Quedamos a vuestra entera disposición.*

*Recibir un saludo.*

*Jon A. Ramos*
*Dirección General*

Somos ASKORA, una joven e innovadora empresa gipuzkoana con sede en Donostia. Nacimos en 2005 y trabajamos en los cuatro territorios históricos y en Iparralde.

Desde el nacimiento llevamos años ofreciendo servicios de alimentación a centros educativos innovadores que tienen como objetivo transformar el mundo desde la educación, la alimentación y la salud.

Comprometidos con nuestro medio rural y comprometidos también con las personas, procuramos una alimentación saludable y un cuidado de calidad tanto en guarderías, ikastolas, como en colegios mayores, empresas y centros residenciales para personas mayores.

Durante los últimos años estamos llevando a cabo procesos de innovación participativa y colaborativa y mediante los cuales hemos creado un modelo de comedor escolar novedoso y transformador llamado Mahi-Mahi. Un modelo que, además de ofrecer una alimentación saludable, trabaja la autonomía y el desarrollo de las y los comensales con un aprendizaje basado en metodologías lúdicas y en lo vivencial que se suma al propio Proyecto Educativo del Centro.

### Alimentación saludable

Ofrecer una alimentación saludable, equilibrada y de calidad es la base del servicio de ASKORA, por eso el Equipo de Nutricionistas con Amaia Zabaleta y Lierni Goicoechea a la cabeza, programan mensualmente los menús de EKINTZA Ikastola, desarrollando menús únicos para el alumnado y profesorado y también personalizados para aquellas personas con necesidades alimentarias específicas.

Los menús de EKINTZA Ikastola se consensúan con la propia Ikastola y se elaboran de manera diaria en sus cocinas en Olarain y en un horario muy próximo a la hora de comer para que sean recién hechos.

Chefs como Henry Ocelly, Yurema Peña y Responsables de Atención como Itxaso Armendariz se encargan de que todo esté a punto y también se encargan de recoger a diario las impresiones, gustos y preferencias de nuestros hijos e hijas en la Ikastola.

Desde la Ikastola, Mª Ascen y todo el equipo hacen llegar a cocina las incidencias del día, gustos, cantidades y cuantas observaciones recogen a pie de mesa.

En los menús de EKINTZA Ikastola encontraréis siempre la calibración de los platos a servir en el día

para que conozcáis el valor nutricional así como los alérgenos que contienen. Podéis consultar los menús mensuales que están siempre a vuestra disposición en la plataforma menu.askora.com y en la plataforma de la Ikastola.

Pero nuestro afán de fomentar la alimentación saludable va más allá de lo que servimos. Por eso, realizamos talleres sobre nutrición con el alumnado, talleres en los que trabajamos temas como el racionado, las familias de alimentos o el sentido del gusto y también participaremos en las reuniones de satisfacción y mejora que EKINTZA Ikastola tiene creado ya desde hace tiempo.

## Cuidamos de ti, cuidamos del planeta

Tenemos un gran compromiso social y medioambiental y esto se refleja en muchas de las acciones que realizamos y realizaremos en EKINTZA Ikastola.

Toda la materia prima utilizada para la elaboración de los menús diarios se compra siguiendo nuestro Plan de Compras Sostenible mediante el cual procuramos ofrecer la mejor materia prima, comprada además de una manera ética que asegura el bienestar animal y los derechos humanos y que, a su vez, nos ayuda a reducir las emisiones generadas, cuidar el medio ambiente y aumentar nuestro impacto en la salud y en la economía local.

Debido a ello el 40% de los días de servicio ofrecemos alimentos ecológicos y/o locales en nuestro menú de EKINTZA Ikastola: yogur de producción local, pasta ecológica, legumbre local, verduras locales y del estado, pescado fresco del cantábrico una vez al mes, huevos de código 0 o 1… Estos días aparecen indicados en naranja en el menú y, además, en el propio jantoki disponemos de un panel en el que indicamos los alimentos ecológicos y locales del día para que nuestras hijas e hijos tomen conciencia de ello.

También y con el objetivo de concienciar al alumnado sobre la repercusión que tienen nuestros hábitos de alimentación y consumo en el planeta, en nuestro maltrecho planeta, celebramos mensualmente "Egun Berdea". Un día libre de proteína de origen animal, en el que esta se compensa con alimentos de origen vegetal, respetando los valores nutricionales necesarios en la dieta.

Y es que ¿sabíais que incluir en el menú de nuestros centros como EKINTZA Ikastola mensualmente un día sin proteína de origen animal nos ayuda a reducir anualmente 39 toneladas de emisión de CO2? Además y así, con esta sencilla medida nos unimos a la recomendación de la OMS que aconseja reducir el consumo de carne en nuestra dieta.

Nuestro viaje junto a vosotras y vosotros ya ha comenzado, y nos esforzaremos para daros lo mejor de cada uno de nosotros y nosotras

Elikadura osasuntsu, orekatu eta kalitatezkoa eskaintzea gure zerbitzuaren oinarria da.

Ikastolako menuak, zuzendaritzarekin adosten dira eta Olaraineko sukaldeetan prestatzen dira, egunero bazkalordurako egin berri egon daitezen.

Gizartea eta ingurumenarekiko dugun konpromisoa handia denez, EKINTZAn burutu ditugun eta burutuko ditugun jarduera ugaritan antzemango duzue.

Menuak egiteko, erositako lehengai guztiak, gure Erosketa Jasangarri Plana jarraituz egiten dira. %40an elikagai ekologiko eta bertakoak zerbitzatzen dira. (Elikagai ekologiko eta bertakoak. Jogurt lokala, pasta ekologikoa, bertako lekaleak, bertako eta estatu mailako barazkiak, Kantauriko arrain freskoa hilean behin, 0 eta 1 kodigoko arrautzak, etab).

Gure elikadura eta kontsumo ohiturek planetan duten eraginaren inguruan zuen semealabek kontzientzia har dezaten, hilean behin "Egun Berdea" ospatzen dugu, animalia jatorriko proteinarik gabeko eguna.

# ESPAZIOAREN BERRANTOLAKETA

## Espazio ireki eta moldagarrien alde

EKINTZA ikastolan etengabeko berrikuntza metodologikoan gauden honetan , duela urtebete Haur Hezkuntzako espazioak berrantolatzeari ekin genion.

Espazioek, beste baliabide batzuk bezala, duten eraginaz jabetuta, berrantolatzearean premia ikusi genuen: espazio fisiko moldagarriak eta malguak, hobeto diseinatutakoak, irakaskuntza prozesu aktibo, dinamiko eta parte-hartzaileari hobeto erantzungo zietenak.

Aspaldiko urteetatik hona zenbait aktibitate konpartitzeko joera dugu, esate baterako: bideo

Animados por la permanente búsqueda de la mejora de nuestro planteamiento pedagógica, hace un año comenzamos la transformación del espacio de las aulas de Educación Infantil unificando el espacio de cada curso. En Educación Infantil llevamos años compartiendo actividades entre los dos grupos de cada curso en diferentes momentos de la semana, superando la pared que separaba el espacio de cada aula. Con la nueva estructura de aula, aún manteniendo algunos tiempos en pequeño grupo, buscamos enriquecer la experiencia del alumnado, a través de una oferta de txokos enriquecida tanto a nivel de cantidad como de calidad, una mejor gestión de los proyectos que se realizan en común y diversificar y enriquecer también las opciones de interacción entre el alumnado. Además las tutoras comparten más espacios y tiempos que facilitan y complementan la visión y el conocimiento de cada uno de los niños/as. En un futuro próximo, está nueva disposición animará, seguramente, otras innovaciones que iremos desarrollando paso a paso.

saioak, proiektuak...etab, eta gelen arteko zirkulazioa errazten genuen bestelako tarteetan,era informalean bazen ere. Zergatik txokoak ere ez konpartitu? Kudeatzeko aukera berriak irekitzen zitzaizkigun, beraz, maila bakoitzeko bi gelak banatzen zituen horma botatzea erabaki zen.

Bi gelak bat egitean, ikasleek mugitzeko esparru zabalagoa dute, autonomia eremu handiagoa eta txoko gehiago eta aberatsagoetan jolasteko edota lan egiteko aukera dute. Horrela Antzerkia, Txoko sinbolikoa, Txoko lasaia, Plastika txokoa, Eraiketak, Natur txokoa, Hizki txokoa edo Mahai jokoak dituzte aukeran eguneroko jolas askearen denboran aritzeko.

Halaber, umeen arteko erlazioak ere aberasten dira, harreman ingurunea nabarmen zabaltzen da, bakoitzaren gelako lagunekin nahiz beste gelako kideekin elkarrekintzan jolasean aritzeko aukera baitute.

Bestalde, Irakasleok ikasle bakoitzarekiko ikuspegia aberasten dugu, bi irakasleren begirada osagarria lagungarri gertatzen zaigulako ikasleen ezagutzan, jarraipenean eta ebaluazioa egiterakoan.

Espazio irekiaren egitura oso aproposa gertatzen da ikasmaila bezala lantzen ditugun proiektuetako jarduerak kudeatzeko garaian ere. Hala ere, badira tarteak eta jarduerak non gela bakoitzaren esparrua mantentzen dugun: batzarra, lan zuzendua edo psikomotrizitatean, adibidez.

Gure lan premiak espazioaren berrikuntza bultzatu duen bezala, hurrengo kurtsoetan egitura berri honek beste hobekuntza edota egokitzapenak eragingo ditu gure proposamen pedagogikoan.

**Irakurketan.**
**Ikerketan.**

**Jolasean.**
**Txoko Lanetan.**

# EZETZAREN KUDEAKETA

## Frustrazioaren kudeaketa trebeak indartsuago egiten du persona

"Ez dut nahi!", "kendu egin didate!", "jo egin nau!", "ez didate uzten!" "nik nahi dut…" bezalako adierazpenak sarri bizi ditugu ikasgelako egunerokoan. Jakina da frustrazioaren kudeaketan trebatzea nortasunaren eraikuntzaren elementu nagusietakoa dela. Ikasturtean zehar, haurren arteko etengabeko interakzioek aukera ugari ematen dizkiete jasotzen diren ezetzei, hau da, frustrazioari, trataera eraikitzailea emateko gaitasuna lantzeko. Halako egoeren aurrean ikasleen erantzuna anitza izaten da, onarpen otzanetik indarkeriara doana, haurraren "ezintasunaren" adierazlea izaten den erreakzioa, alegia. Ikasle bakoitzaren ezaugarrietatik kudeatu behar dugu egoera: isilari hitza ematen, oldartsua lasaitzen, ahula indartzen edota indartsua kontrolatzen. Bizitzaren bidaian **frustrazioaren kudeaketan trebea izateak askeago eta indartsuago egiten du pertsona;** kudeaketa eskasak, berriz, ahul eta mendeko. Zentzu honetan, zenbait ikerlarik "haur belaunaldi bigunen" inguruan ohartarazten dute: "se está creando una generación de niños/as con mucha formación académica pero con nula formación del carácter y tolerancia cero a la frustración" (Eva Millet, "Hiperpaternidad" Ed. Plataforma Actual).

Ikasgelaren gizarte txikiak, egoera gatazkatsuetatik ikasteko aukera onak eskaintzen dituela pentsatzen dugu irakasleok, etxea eta familiaren espazioarekin batera, eszenatoki aproposa dela tolerantzian trebatzeko. Horretan aritzen gara eguneroko jardunean. Elkarrizketan eta akordioan oinarritutako esku hartzea etengabe lantzen ditugu ikasleekin. Unean uneko ikasleen izaera profila ere gogoan dugu.

Gogoeta eta konponbiderako ibilbidea ardatz hauetan oinarritzen da:

1. Testuingurua jarri: gertaera hitzetan jarri eta lasaitu.
2. Enpatia sustatu: bestearen egoera, premia, eskaera… ikusarazi.
3. Aukerak aztertu: bakoitzak zer egin dezake?
4. Akordioa lortu: irteera adostu partaideen artean.

Egoera gatazkatsu gehienak era partekatuan ongi bideratzen dira, baina badira adostasunera iristeko gaitasuna lortzea kosta egiten zaien ikasleak ere. Orduan, irakaslearen autoritateak erabakitzen eta ixten du auzia… jakin badakien arren, haur horiekin sortuko den hurrengo gatazkarekin modu partekatu eta eraikitzailean bideratzeko aukera berriarekin lanean jarraitu beharko duela.

"No quiero", "me han quitado"… Con frecuencia oímos en la ikastola este tipo de expresiones. Como la frustración forma parte del desarrollo personal del/la niña, durante el curso tratamos de forma constructiva las interacciones y los conflictos que se dan entre los/las niños/as.

Hay muchas maneras de reaccionar ante estas situaciones desde el/la que la acepta hasta el/la que se niega y se enfada; nuestra función será ayudarle a aceptar y gestionar el conflicto haciéndolo ver que con el enfado no va a conseguir nada. Algunas voces advierten: "se está creando una generación de niños/as con mucha formación académica pero con nula formación del carácter y tolerancia cero a la frustración" (Eva Millet, "Hiperpaternidad" Ed. Plataforma Actual).

En todos los ámbitos del niño se producen conflictos por ello los adultos deberemos enseñarles a llegar a un acuerdo:

1. Contextualizar: poner en palabras lo sucedido.
2. Empatizar con el "otro/a"
3. Analizar posibles soluciones
4. Llegar a un acuerdo

En las ocasiones en las que vemos que no se llega a ningún acuerdo, nosotros/as guiamos y decidimos de manera constructiva cómo gestionarlo y solucionarlo.

Erakusten ikasten.
Auzitegira bisitan.
Irakurketa taldean.

Aquariumean gure marrazkiak ikusten.
Taldea osatzeko zain.
Erdi Aroko herriari buruzko hitzalditxoa entzuten.

Taldeko lana.
Plastikoaren bilketa hondartzan.
Inauterietako martzianoak.

# KIROLA + BALIOAK = ELKARTASUNA

## IDK saskibaloi taldekideekin balioak lantzen

Benetako kirolaren ondasun nagusia oinarrian dituen balio etikoak dira; guztion esku daudenak eta ez dutenak inor baztertzen. Horrez gain, ikasleen garapen pertsonalean eragina izaten dute eta balio hauek betirako izaten dira. Balio etikoekin beti irabazten dugu. Hori dela eta, altxor hau zaindu behar dugu, eta kirolarekin oraindik gozatzen ez dutenei eskaini behar diegu, bereziki gure haurrei.

Kirolak on egiteko balio behar du. Onura fisikoak, gorputza zaintzeko; onura mentalak, osasun psikologikoa mantentzeko eta hobetzeko; eta onura sozialak, pertsonen sozializazio eta integrazio-prozesuak errazteko. Ideia hau abiapuntu hartzen dugu gure ikasleekin. Errespetuak edozein kirolari onartu eta baloratzea, berezitasunak aztertzea, onartzea eta toleranteak izatea eskatzen du.

Kirolak gure ikasleengan duen eragin positiboa ikusirik, aurreko ikasturtean, Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan, “Ibaeta Kirol Balioak” izeneko proiektu berritzaile batean parte hartzeko aukera izan genuen. Bertan, IDK saskibaloi taldearekin, “Saber convivir” saioetan murgildu ginen. Horretarako, irakasleok, gelan bertan, kirolak eskaintzen dituen balioak landu genituen: errespetua, laguntasuna, berdintasuna, enpatia, leialtasuna, autoestimua, ahalegina, erresilientzia, apaltasuna eta alaitasuna. Ikasleen gertuko bizipen ezberdinen bitartez, balioen funtzioak ulertu eta ezagutu genituen. Talde txikietan, IDK-ko jokalariekin batera, feedback-a jasotzeko aukera izan genuen.

Ikasleentzat oso esperientzia onuragarria eta motibagarria izan zen, non aukera izan zuten landutako balio etikoak praktikan jarri eta barneratzeko.

Hoy en día hay un consenso generalizado en torno a valores positivos como pueden ser el respeto, esfuerzo, la búsqueda del progreso o el sacrificio, que hacen de ellos objetivos pedagógicos de primer orden. Estos valores, están íntimamente relacionados con el deporte y hacen que su desarrollo en el marco escolar suponga un valioso complemento para la educación de nuestro alumnado.

De este modo, la práctica deportiva, al margen de su indudable repercusión en el ámbito de la salud, nos aporta otros beneficios no menos importantes relacionados con el crecimiento personal del niño. Aprender los entresijos de un determinado deporte o deportes, entrenar con tus compañeros, mejorar, establecer relaciones diferentes, preparar la competición, competir, aceptar el resultado… ¡Qué cosas tan importantes! En el deporte y en la vida. Tan importantes que desde el ámbito educativo, no debemos dejar pasar la oportunidad de aprovechar los valores que encierra la práctica deportiva, potenciándolos, y adecuándolos a nuestra realidad docente.

Gosari osasuntsua.
Arritxulon.
Arabiarren proiektua lantzen.
OSEko kontzertuan.
Gabon kanta jaialdia.
Inauteriak.

# PLASTIKOZKO ITSASOAK

## LH6. mailako ikasle taldea irabazle “itsasoak salbatzeko artea” lehiaketan

Ikasturte hasieran Real Sociedad Fundaziotik eta Donostiako nazioarteko itsaspeko zine ziklotik (CIMASUB) azaroan Aquariumeko auditorioan ospatzekoa zen Txiki Zikloan parte hartzeko gonbitea jaso genuen. Ekimen hezitzaile honen bidez itsasoarekiko eta ingurumenarekiko errespetua sustatzea zen helburu nagusia. Gaiaren garrantzia eta gaurkotasunak bultzatuta, proposatutako lehiaketan parte hartzea erabaki eta ibilbideari ekin genion.

### ARAZOAREN KONTZIENTZIAZIO FASEA

Sentsibilizazio fasean Interneten bidez plastiko mota desberdinek itsasoetan eta bertan bizi diren animaliei eragindako min izugarriak erakusten dituzten irudiak behatu genituen, mundu osoko arazoa gurea ere badela ohartuz (Zumaiako Flysch-a, adibidez). Herrialde desberdinetako iniziatiba asko (lehiaketak, erakusketak etab.) ere ezagutu genituen.

### ARTELANEN PRESTAKETA

Itsasoa salbatzeko artelanak taldeka egin zituzten. Lehenik bozetoa prestatu zuten eta ondoren beraiek ekarritako plastikozko ontzi, tapoi,… hauekin dioramak montatu zituzten. Bozketa egin eta talde irabazlearena aurkeztu genuen lehiaketan. Eta, baita irabazi ere! ZORIONAK Aner Chaves, Karla Zubillaga, Sara Gorostidi eta Imanol Iturrioz!

### AQUARIUMERA BISITA

Aquariumeko auditoriumean bideo desberdinak ikusi genituen: Itsasoko animaliak bere edertasunean, Donostiako kosta urpekariak plastiko eta zaborrak garbitzen, gizakion erasoak (arrantzarako uhinak erabiltzean, petrolioa ateratzerakoan, plastikozko ontzi eta botilak kontrolik gabe bota eta itsasoan bukatzen dutenean…), eta azkenik Mikroplastikoek nola bukatzen duten animalietan metatuta (muskuiluetan adibidez) eta ondorioz nola gure gorputzean sartzen diren.

Honen ondoren, bertan zeuden itsaspeko biologo eta zine adituekin oso solasaldi interesgarria izan genuen. Eta azkenik, Aquariuma bisitatu genuen. Egun ahaztezina!

**Erakusketako BIDEOA**
**https://youtu.be/G0ePPzka1EI**

A principios de curso los niños y niñas de 6º participaron en una iniciativa promovida por La Fundación de la Real Sociedad y CIMASUB y que buscaba la concienciación ante el problema en el que se está convirtiendo el plástico para nuestro planeta y en concreto para la vida en el mar. Trabajando en grupos, primero diseñaron y luego construyeron diferentes maquetas utilizando materiales del contenedor amarillo. Eligieron la que nos representaría en el concurso y… ¡resultó premiada! En el Aquárium vieron diferentes vídeos y escucharon lo que contaban los submarinistas. Tras esta gran experiencia instructiva disfrutaron de una entretenida visita al aquárium.

LH6 Irakurle Gazteak.

LH6 Feminismoa Emakumearen Eguna.

LH5 Gabon kantak.

Euskaraldia.

LH6 Pentsamendu bisuala.

LH5 bertso jaialdia.

LH6 Inauteriak.

# MIMARTE

## Ahotsik gabeko deidarra: ALKOHOLIK EZ!

Pasa den ekainean, **Peter Roberts** mimo-artista, isiltasunaren artea deritzona, gure artean egon zen.

Jaiotzez eskoziarra, duela 45 urte Donostian bizi da. Badira urte batzuk mimo tailerra zuzentzen ari dela eta hainbat ikastaro eman ditu talde anitzetan: antzezleentzat, irakasleentzat, ikasleentzat eta pantomima eta ilusioaren maitaleentzat.

Gorputz hizkuntzako teknikak modu bikainean erabili zituen eta bere arteak txunditu egin gintuen aurkeztu zigun Mimarte proiektuaren bitartez.

Obra honetan alkoholak dakartzan ondorio txarrak azaldu zizkigun gorputzaren keinuz, soinuz eta mugimenduez. Denak adi-adi eduki gintuen, begiak ondo irekiak genituela eta belarriak erne mantenduz. Eszena desberdinak eskaini zizkigun: taberna zuloan mozkortien arteko erlazioak, kotxeko istripuak, ospitaleko momentuak etab. ikusi ahal izan genituen.

**MIMARTE** es un espectáculo de mimo, magia y humor diferente que anima a la participación del público. Sensibiliza sobre el consumo de alcohol y es un recurso de prevención primaria para la sensibilización y la toma de conciencia del verdadero riesgo que conlleva el abuso del alcohol.

Gaur egun kontsumoak gero eta lehenago hasten direla jakinik, saio honen helburua gazteen artean sentsibilizazioa lortzea da. DBH 2. mailako ikasleak ikusle eta partaide dinamikoak izan ziren funtzio guztiz interaktiboan.

Bere mezua oso garbi ulertu eta jaso genuen: oso erraza da alkohol kontsumoan hastea baina oso zaila bertatik ateratzea. Kasu askotan, beranduegi izateraino; osasuna edo bizitza galtzeraino ere.

Esker mila, Peter!

DBH1: Elkarbizitza Astitzen.
DBH1: Kirola.
DBH2: Inauteriak.
DBH1: Olentzero.
DBH1: Inauteriak.
DBH2: Oiassora irteera.

Kurtso amaierako irteera.
DHH2: Gastronomika.
DBH1: San Telmoko kalejira.
DHH2: Bartzelona.
DBH2: GUREAKera irteera.

# ROBOTIKA ETA 3D INPRIMAKETA GELAN

## Eguneroko beharretara egokitzeko teknologia eraldatzen

Teknologiako departamentuak DBHko programazioa berritzeari ekin dio. Helburu nagusia ikasleen motibazioa areagotzea izan da, horretarako teknologia errealitatera hurbildu nahi izan dute. Gainera, helburu hauek ere lortzen dira:

- Ikasleen logika matematikoari lotuta dagoen pentsamendu konputazionala garatu.
- Akatsetan oinarritutako ikasketa: ikasleek programatutakoaren emaitza zuzenean begira dezaketenez, akatsa non egin duten ikusi eta haietatik era autonomoan ikas dezakete.
- Bideojokoak eta proiektu propioak sortzeko aukera ematea.
- Talde lana sustatzea.

Hori guztia kontuan hartuta DBHn “Robotika eta 3D inprimaketa” arloa txertatu da. DBH 1. eta 2. mailan Scratch programaren bidez bideojokoak sortzen ikasten dute. DBH 3. eta 4. maileta ARDUINO programan oinarritutako BQ plaka kontrolatzailearen programazioa ikasten dute, horretarako BITBLOQ softwarea erabiliz. Bestalde, 3Dko piezak sortuko dituzte eta inprimatzen hasiko dira. Honez gain, mugikorreko aplikazioak garatuko dituzte.

Kurtso bukaeran, ikasitako guztia aplikatuz, DBH 4ko ikasleek taldeko proiektu konplexu eta berritzaile bat garatu dute. Honekin batera, diseinatutako objektu hori errealitatera eramateko bidea aztertu dute. Horretarako Maker mugimenduari jarraitu diote. Lan guztiekin Ikastolako kide guztientzat ikusgai egon den erakusketa egin dute. Iazko kurtsoan ikastolen arteko txapelketa batera aurkeztu ziren eta bi sari irabazi zituzten:

- Itsuentzako betaurrekoak. Taldea Jon Alonsok, Lucía Ligüerik eta Pablo Ochoak osatu zuten, eta bigarren saria lortu zuten.
- “Roomba” etxe tresnaren bertsio propioa egin zuten. Taldea Eneko Urcelayk, Borja Muguruzak eta Adei Garmendiak osatu zuten, eta hirugarren saria lortu zuten.

Proiektu hauei guztiei hauei buruzko bideoak eta ikasleen azalpenak ondorengo QR-etan aurki ditzakezue.

El movimiento Maker o “Háztelo tú mismo” a nivel tecnológico es una oleada de talento, colaboración y proyectos. Se trata de llevar a la realidad ideas que parecían increíbles.

MAKER MOVEMENT

La asignatura de Tecnología se renueva con el objetivo de acercarla a la vida diaria. Imaginar, diseñar, crear y colaborar son parte del trabajo que cada uno de los equipos deberá llevar a cabo. Su trabajo se expone con el fin de enseñar al resto de los alumnos las posibilidades que tiene la Tecnología.

EKOTOY – Birziklatutako materialekin jostailuak egiten.

Zientzia Astea.

Indiako lagunen bisita.

Laborategian.

Itsasoaren eguna.

Orona.

ERTZAINTZA - Drogei buruzko hitzaldia.

Atzegi.

# EKOTOY
# (BIRZIKLATU, SORTU, JOLASTU)

## Munduaren egoeraz jabetuta, aldaketa klimatikoaren inguruko hausnarketarako Ikastola mailako proiektua

Kultura Zientifikoko ikasgaiaren helburu nagusia zientzia, teknologia eta gizartearen arteko erlazioa lantzea da eta jorratzen diren bi gai garrantzitsuenak aldaketa klimatikoa eta genetika dira. Mundu mailako egoera larriaz jabetuta, 1. mailako ikasleei bururatuko proiektua da Eko-Toy. Ikastola mailan hausnarketa eragin nahian, denontzat erakargarria izan zitekeen ideia izan genuen. Ikasgaia ingelesez egiten dugu baina Ikastola mailan egingo zen proiektua zela kontuan hartuta, euskaraz egitea erabaki genuen. Birziklatzea eta gure egunerokoan egiten dugun gehiegizko kontsumoa oinarri harturik, proiektua martxan jarri genuen.

Proiektuan LH2ko eta DBH4ko ikasleek parte hartu zuten. Arduradunok binaka ikasle txikiagoen klaseetara joan ginen proiektua azaltzera. Gaiaren inguruan ikasitakoak azaldu genizkien eta azalpenaren ondoren hausnarketarako tartea utzi genien. Irakasleentzako azalpen bat ere prestatu genuen denek argi eduki zitzaten proiektuaren nondik norakoak. Egin zizkieten galderen artean zenbat zabor jaso zezaketen aste batean, ze zabor mota sortzen zuten eta berrerabiltzen zuten galdetu genien. Honek bide eman zigun ondorengo proposamena egiteko: MATERIAL BIRZIKLATUAK ERABILIZ JOSTAILU BAT SORTZEA.

Handik aurrera astebete izan zuten etxean birziklatu zitezkeen materialak jaso eta Ikastolara ekartzeko. Ondoren, gaztetxo guztien sormena erakusteko eguna iritsi zen. Gela bakoitzean talde asko sortu ziren eta batxilergoko ikasleek lagunduta, bakoitzak jostailu bat sortu behar izan zuen etxetik ekarritako material birziklagarriarekin. Kudeaketa ez zen erraza izan bertan parte hartu zuten ikasle eta irakasleen kopurua handia izan zen eta.

Jostailurik onena zein zen hautatzeko asmoz bozketa egiteko web orri bat sortu genuen eta IZURDE gelakoak izan ziren irabazleak. Saria, gela guztiarentzat batxilergoko ikasleek prestatutako gosari ekologikoa izan zen.

Proiektu hau lantzen ohartu gara pauso txiki bat dela pentsatzen dugun hori, denon artean eginda, lorpen handi bilaka daitekeela.

**ZORIONAK GUZTIOI!**

Desde la asignatura de Cultura Científica, los alumnos de 1º de bachillerato, preocupados por la situación mundial en torno al cambio climático propusimos un proyecto para la reflexión llamado EkoToy.

En el proyecto se trabajó con el alumnado desde 2º de primaria a 4º de la ESO. A partir de algunas preguntas y reflexiones se les planteó el reto de crear un JUGUETE HECHO DE MATERIAL RECICLADO generado en sus casas. Se pusieron a trabajar en diferentes proyectos con la ayuda de los organizadores creando juguetes de todo tipo.

El proyecto ganador fue el realizado en la clase IZURDE y el premio fue un desayuno ecológico preparado por el alumnado de bachillerato.

Este proyecto nos ha ayudado a darnos cuenta que un pequeño paso individual puede parecernos insignificante pero que entre todos podemos lograr grandes objetivos.

**¡FELICIDADES A TODOS!**

# AGUR IKASTOLARI

Ez dut sinisten dagoeneko 15 urte igaro direla. Gogoratzen naiz txikitan bukatzeko nuen gogoa baina batbatean gogo hori joan egin zait. Eskola bukatzeak nire bizitzaren etapa oso garrantzitsu bati amaiera ematen dio eta honek pena handia sorrarazten dit.

Nahiz eta hasieran pixka bat kostatu, oroipen onak ditut eskolaren hasierari buruz. Joxik abesten zizkigun abestiak, berarekin prestatzen genituen antzerkiak ``euskal telebistarako´´ eta Mr. Johnen Ingeleseko klaseak beti oroitzapenean edukiko ditut. Gogoratzen naiz zein handia sentitzen nintzen eraikinez aldatu ginenean baina orain konturatzen naiz zein txikia nintzen momentu hartan. Oso aldaketa handiak ikusi genituen eraikin berri honetan, batxilergoko 2. mailakoek erraldoiak ziruditen eta irakasle gehienak berriak ziren, Bolitxe izan ezik. DBHn sartzeak Ingelesa Itziarrekin hastea suposatu zuen eta oso ondo gogoratzen ditut haren klaseak eta egia esanda, oroitzapen ona dut beraiei buruz. Oso aipagarriak dira Antxon eta Azuren kirol klaseak eta PI eta Couper probak, asko botako ditut faltan. Bi azken urte hauek oso azkar pasa dira, bereziki Landetan pasa genuen aste ahaztezin hura, momentu zoragarri asko bizi izan genituen han.

Orain nire bizitzaren etapa berri bat hasteko momentua da. Nire ustez ikastolak asko lagundu dit akademikoki eta pertsona bezala hazten. Ez nuen espero Ikastola inoiz faltan botako nuenik.

Iker Martin

Parece mentira que hayan pasado 15 años desde la primera vez que nuestros padres nos dejaron en aquel edificio de barrotes rojos al que hemos cogido tanto cariño.

Aún recuerdo momentos, como lo feliz que iba a la ikastola cuando me tocaba repartir los famosos "hamaiketakos" de mis compañeros en párvulos, competíamos por quién conseguía construir la torre más alta y hacíamos lo que fuese para jugar con el agua, patos y barcos de aquella bañera de Ahata gela. Son inolvidables esas semanas que empezaban con las increíbles historias que nos contaba Joxi y terminaban con el clásico "Mantalak etxera" que cantábamos con tanto entusiasmo en el corro.

Sin darnos cuanta dejamos atrás las peleas por jugar en el ordenador al "Reciclator" y sustituimos la canción "hello, hello" de Míster John por el "lets find out" de Koro. Este fue el año en el que pasamos al edificio de los mayores y poco a poco empezamos a acostumbrarnos a los exámenes de los que ahora estamos hartos. También me acuerdo de la intriga con la que estuvimos en la primera clase de Joxe para descubrir si aquella historia que pasaba curso tras curso de que lanzaba tizas era cierta. Y del día en el que llegó el esperadísimo viaje a Barcelona de segundo de la ESO, que aunque no fuese fácil, superó todas las expectativas que teníamos.

Ya nos estamos dando cuenta, con mucha pena, de que esto se acaba y aunque muchas veces haya sido duro, siempre tendré en mente clases en las que me he reído, como en la que hicimos la figura de jabón en Arte con Saioa, clases de Economía con Uxue de las que no me cansaré. Tampoco me olvidaré de EKINTZA Musika eskola, que tras 10 años tocando la flauta , tengo que dar las gracias a Kukua gela y gracias Nuria, por enseñarme con toda tu paciencia a tocar la flauta y por hacerme ver lo importante que es la música.

Es ahora, escribiendo estas líneas, cuando me doy cuenta de que EKINTZA no es solo una ikastola en la que nos enseñan y preparan para el futuro, sino que se convierte en una familia y época de nuestras vidas de la que nunca nos cansaremos de recordar. Por estos momentos tan felices y muchos más, doy las gracias a toda la Ikastola y a mis compañeros, con mucho cariño, os deseo lo mejor.

Uxue Iturrioz

DBH 4: Oronan.

Danborrada Eguna.

HH-LH: Korrika.

Euskaraldia.

DBH 3: Itsasoaren eguna.

HH 4: Kaldereroak.

LH: Kirol Jolasak.

# OSPAKIZUNAK, ALBISTEAK

HH4 Txitak jaio dira!.

Ikasle ohiak bisitan.

HH: Inauteriak.

HH 4: Haizearen orrazian.

LH 1: Igeriketa ikastaroa.

DBH 4: Teknologiako proiektu sarituak.

DBH 2: Bartzelonako bidaian.

BATX 2: Matrikula banaketa.

# OSPAKIZUNAK, ALBISTEAK

HH 4: Zirkua proiektua.

DBH 4: Errespetua.

Santo Tomas.

LH 5: Bide Hezkuntzarako ikastaroa.

HH 5: Itsasoa proiektua.

BATX 1: Rezola Zahar etxeko agureak bisitan.

BATX 2: Zumaiako Geoparkean.

Joxeren azken eguna.

LH 3: Egipto proiektuaren erakusketa.

DBH 4: Teknologiako proiektuaren erakusketa.

DBH 3: Zientzia Astea Tabakaleran.

# “Gehien gustatu zaidana 45 urtez Matematika eta Fisika irakasle izatea da. Horren hutsunea da gehien sentitzen eta sentituko dudana”.

# Ignacio Marín

**Aurten elkarrizketa oso berezia egin dugu. Ohikoa da atal honetan bere lanbidean erreferente den norbaiten ikuspegia ekartzea eta aurten oso garbi izan dugu pertsona hori etxean bertan genuela; Ignacio, gure Zuzendaria azken 37 urteetan. Bere erretiroa dela eta, une egokiena iruditu zaigu berarekin solasean aritzeko iraganaz eta batez ere etorkizunaz.**

**¿Qué sientes en estos momentos?**

En estos momentos siento, sobre todo, mucha tranquilidad. No tengo ninguna duda de que el proyecto al que he entregado mi vida profesional queda en manos de un equipo excelente que será capaz de adaptar nuestro Proyecto Educativo a las nuevas exigencias y cambios, manteniendo sus raíces.

**“Zalantzarik gabe, nire bizitza profesionalari eman diodan proiektua talde bikain baten esku geratzen da, eta talde hori sustraiei eutsiz gure hezkuntza-proiektua eskakizun eta aldaketa berrietara egokitzeko gai izango da”.**

También siento agradecimiento por todos los que han hecho posible que nuestra Ikastola haya alcanzado el prestigio que, gracias a su esfuerzo y colaboración, tiene en la actualidad.

Y, aunque a veces, me embarga una cierta nostalgia, lógica al llegar el final de mi vida profesional, se compensa con creces con la satisfacción que siento al ver lo que hemos conseguido.

**Haciendo un breve repaso de tu vida, cuéntanos qué te trajo al mundo de la enseñanza y qué tareas has desempeñado en ella.**

Cuando con 16 años comencé mis estudios Universitarios de Ciencias Físicas en la Universidad de Navarra -en lo que hoy es TECNUN- me incorporé como profesor a la Academia Aries, centro que mi hermano Paco había montado unos años antes. Paco fue el que nos convenció a un grupo de profesores de ARIES para abrir EKINTZA en 1977. Yo me incorporé en 1979 como profesor de Matemáticas y Física de Bachillerato y Responsable del COU. En 1982 me nombraron Director y en 1986, cuando se constituyó EKINTZA Fundazioa, me designaron, además, Director Gerente de la Fundación.

Pero lo que más me ha gustado es ser profesor de Matemáticas y Física durante 45 años. Eso es lo que más echo y echaré de menos.

**Sabemos que la profesión de educador, a pesar de ser muy enriquecedora, a veces, es socialmente poco reconocida, siendo tú físico de formación, ¿te has arrepentido alguna vez de haber tomado este camino?**

Quizás me haya podido arrepentir en los momentos más difíciles. Pero ahora volvería a tomar la decisión que tomé en mi juventud. Entre otras muchas cosas positivas, ese camino me condujo a Mariaje, que de compañera de trabajo pasó a ser compañera de vida.

Por otra parte, es cierto que nuestra profesión, a veces, no tiene el reconocimiento que merece y necesita. Algunas personas me han oído decir, caricaturizando la situación, que los "profesores hemos pasado de tener siempre la razón a tener siempre la culpa". Por eso he trabajado y trabajaré para que el profesorado alcance el prestigio que necesita y merece, por su formación, actitud y profesionalidad, porque eso es una de las claves fundamentales en un sistema educativo de éxito.

**Todos los que hemos estado junto a ti sabemos que EKINTZA ha sido una parte muy importante de tu vida. ¿Qué has dejado en el camino por entregarle tanto esfuerzo y dedicación? ¿A qué has renunciado?**

